

**7. ERANSKINA:  
LURREN MUGIMENDUA**



## Aurkibidea

1. Ikasketaren Helburua.....	3
2. Aurretiko Jarduerak .....	3
3. Lurren Mugimenduak .....	3



## 1. Ikasketaren Helburua

Eranskin honen helburua, lurren mugimenduaren bolumena zehaztea da, beti ere, obra hasi baino lehen egin beharreko lanak azalduz.

## 2. Aurretiko Jarduerak

Aparkalekuaren eraikuntza lanak egiten hasi baino lehen, ezinbestekoa izango da, inguruan dagoen landarediaren lekualdatzea, bankuen eta seinaleztapen elementuak kentzea, obraren hesitzea eta seinaleztapen egokia irudikatzea, bai pertsonen segurtasuna bermatzeko, baita arazoak edota istripuak ekiditeko.


## 3. Lurren Mugimenduak

Behin aurretiko jarduerak amaituta, lurren mugimenduak burutzera pasatuko da.

### Hondeaketa

Zimentazioa zapata isolatuen bidez burutuko da, beraz, hau era zuzen batean egiteko, lurzorua guztiz horizontal egon behar da eta egiturak transmitituko dizkion esfortzuak jasateko gai izan beharko da. “3. Eranskina Ikasketa Geoteknikoa” agertzen den moduan, orubearen lehenengo 6,2 metrotan betegarria aurkituko da eta hortik behera, arroka.

Beraz, hondeatu behar den lur bolumena lehenengo irudian agertzen dena izango da:



**1. Irudia: Aparkalekuaren azalera  
(Iturria: AutoCAD)**

$$\text{Bolumena} = 1800 \text{ m}^2 \times 6,5 \text{ m} = 11700 \text{ m}^3$$

Ateratzen diren lurrak, Artigas zabortegira eramango dira (Etxebarritik 14 Km-tara).